

2016ko OTSAILAREN 23ko ERAUNDEARTEKO BATZORDEAREN BILERAREN AKTA

Bertaratuak:

María Ángeles Elorza andrea, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia eta Erakundearteko Batzordeko presidentea

Paul Ortega jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria

Nekane Zeberio andrea, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz

María Guijarro andrea, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz

Maite Etxebarria andrea eta Juanma Balerdi jauna, Euskal Fondoa eta EUDEL ordezkatzuz

Euken Barreña, idazkari gisa, hitzarekin baina botorik gabe

EAEko hiru hiriburuetakoko ordezkariak ere bertaratu dira, presidentek gonbidatuta:

Miguel Pérez, Bilboko Udala ordezkatzuz

Silvia Carballo andrea, Donostiako Udala ordezkatzuz

Jaione Aguirre andrea eta Aitor Gabilondo jauna, Gasteizko udala ordezkatzuz

Kokalekua:

Lehendakaritza, Vitoria-Gasteiz

Eguna eta ordua:

2016ko otsailaren 23a, ostirala, 10.00h

2016ko otsailaren 23ko 10:00etan, Erakundearteko Batzordeko presidente Marian Elorza andreak bertaratuei ongietorria egin die, eta Erakundearteko Batzordearen helburua kolaborazioa dela nabarmendu du, garapenerako lankidetzaren politiketan inpaktu eta koherentzia handiago bat lortzeko. Azaldu duenez, politika horiek bide bat egin dute dagoeneko, nahiz eta une zailak bizi izan diren aurrekontu-zailtasunak tarteko. Azpimarratu duenez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia hausnarketa-prozesu batean murgilduta dago une honetan, euskal lankidetzaren birpentsatzeko Gida Planean aurreikusitako ekimenak aurrera eramanean bitartean. Hain zuzen ere, prozesu hori abian jarri da gauza asko aldatu direlako orain 30 urte lankidetzaren politikak abian jarri zirenez geroztik, eta erakundearen arteko elkarrizketa funtsezkoa da prozesu horretan, bakoitzarekiko eta bakoitzaren lan-eremuekiko erabateko errespetutik. Ildo horretan, gaur proposamen jakin batzuk aztertuko direla aipatu du, baina bertaratuak animatu ditu hurrengo bileretan ere beste zenbait proposamen egin ditzaten, erakundearteko kolaborazio horretan aurrera egiten jarraitzeko.

Jarraian, bilerari hasiera eman dio, honako gai-zerrenda honekin:

Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea

- Euskal Lankidetzaren Publikoaren foroa
- Baterako ekimenen proposamenak: ur eta saneamendurako erakundearteko lankidetzarako proiektu pilotua, informazio-sistema bateratua eta larrialdi-laguntzen baterako mekanismoari buruzko tailerra.
- Bestelakoak eta galde-eskeak

1. AURREKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA

Bertaratuek aurreko bilkuraren akta onartu dute.

2. EUSKAL LANKIDETZA PUBLIKOAREN FOROA

Marian Elorzak aipatu du, foro honek, oraingo honetan Ignacio Ellacuría Saria emateko helburuarekin antolatu bada ere, jarraipena izan lezakeela, eta haren garrantzia ere azpimarratu du, erakundearen topaketa eta hausnarketarako ageriko tokia den heinean. Oraingo honetan Gasteizen egin da sariaren entrega aprobetxatuz, baina beste herri batzuetan ere antola liteke, sariaren entregari lotu gabe.

Gasteizko Udalaren ordezkari Jaione Aguirreri ondo iruditzen zaio erakundearen lankidetzaren aldeko apustua nabarmentzea, eta ekitaldira jende asko bertaratu zela eta ekitaldiaren egitura ere gustatu zitzaioela erantsi du.

Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari Maria Guijarro andrearen ustez, saria eta forua bereizi beharko lirateke, sariak balio handia duelako berez, eta sari-entregaren formatua txikia izan litekeelako helburua erakundeen baterako hausnarketa bultzatzea dela aintzat hartuta.

Marian Elorzak baloratu du bi gaiak bereiz daitezkeela, baina erakunde guztiak batera ikusaraztearen garrantzia azpimarratu du, eta urteko foro bat antolatzea horretarako aukera egokia izan litekeela erantsi du jarraian.

Gasteizko Udalaren ordezkari Aitor Gabilondok nabarmendu du horrelako foro batek lehen aldiz elkartu dituela erakunde-maila guztiak hainbeste urteren buruan, eta horregatik positibotzat jo du, eta jarraipena emateko zer egin daitekeen pentsatzeko gogoia azaldu du.

Bilboko Udalaren ordezkari Miguel Pérezek adierazi du, goizeko barne-prestakuntzari buruzko espazioa bereziki interesgarria iruditu zitzaiola, non EBren lankidetzak politikak aztertu ziren. Arratsaldeko ekitaldiari dagokionez adierazi du lehentasuna eman zitzaiola kanpoan nabarmentzeari hausnarketa-foroari baino gehiago, eta herritarren eta prentsaren arreta bestela nola erakar daitekeen ez dakiela erantsi du, saria emateari edo ekitaldi bereziren bati lotuta ez bada.

Euskal Fondoko ordezkari Juanma Balerdik adierazi du berari goizeko lan-bilkuraren formatua gustatzen zaiola gehiago, eta Batzordeak berak foroa programatzea proposatu du kezka jakin batzuen arabera, adituak gonbidatzeko aukerarekin.

Horrenbestez, Marian Elorza andreak proposatu du foroa etorkizunean errepikatzea, eta batzordeak haren formatua erabakitzea.

3. BATERAKO EKIMENEN PROPOSAMENAK

3.1 Ur-ekimena:

Aitor Gabilondok ekimena nola sortu den azaldu du, erakundearteko koordinazio handiago baten beharretik abiatuta, eta koordinazio hori lortzeko baterako ekimenak egitea bide bat izan daitekeela erantsi du. Nabarmendu duenez, proiektu pilotu bat da, kolaborazio finantzarioa ez ezik, kolaborazio teknikoa ere eskaini nahi duena, borondatezkoa, kontrako alderdi publiko eta sektorialak dauzkana, eta urte anitzekoa. Azaldu duenez, ur- eta saneamendu-sektorea hautatu zen eskumen publikoko sektore bat zelako, Euskal Fondoarentzat lehentasunezkoa, lan-esperientzien aurrekariak zeuzkana URAREN eta beste euskal ur-operadore publiko batzuen eskutik. Deialdiari erantsi zaion aurreidentifikazio-dokumentuaren alderdi batzuk azaldu ditu jarraian: herrialdeen hautaketa, bakoitzean esku hartzeko modua, zer eskualdetan esku hartuko den...

2016an identifikazio-faseari helduko litzaioke, eta horrek informazioa emango luke behar diren finantza-baliabideen, egin beharreko jardueren, programa kudeatzeko modalitatearen

inguruan etab. Identifikazioa egiteko, kanpo-aholkularitza batera jotzea pentsatu da, eta finantzaketa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren kontura izango da.

Ekimenaren aurrekontuari dagokionez, erakunde guztien kontura 450.000 euroko ahalegin bat egitea pentsatu da urte anitzetan, 2017tik aurrera.

Juanma Balerdik nabarmendu ditu ekimena batera egitearen abantailak, eta Euskal Fondoaren Erdialdeko Amerikako ordezkariak proiektuari laguntzeko eta jarraipena egiteko moduan egongo litzatekeela adierazi du.

Donostiako Udalaren ordezkari Silvia Carballok, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari Nekane Zeberio, Bilboko Udalaren ordezkari Miguel Pérezek eta Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari María Guijarrok hitza eskatu dute zenbait kontsulta egiteko: ekimenaren denbora-esparrua, Euskal Fondoaren proiektu bat den edo ez, programan parte hartzen duten erakunde eta entitateen koordinazioa eta kudeaketa nola antolatuko den, ekimenaren urte anitzeko izaera...

Aitor Gabilondok eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendari Paul Ortegak gai horiek guztiak argitu dituzte. Marian Elorzak adierazi du, berriz, gaurko bilkuraren helburu bakarra dela erakundeek identifikazioa egiteko beharrezkin bat egitea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren kontura izango dena, eta, behin egin ondoren, erakunde bakoitzak bere gain hartu beharko du ekimena, identifikazioan adierazitakoari jarraikiz. Gainera, Paul Ortegak jakinarazi du martxoaren 18an bilera espezifikoa bat egingo dela ekimen horren gainean, eta bilkuran parte hartzen duten erakunde guztiei eta Euskadiko ur-operadoreei bilera horretara deituko zaiela.

Gipuzkoako Aldundiko ordezkaria ez da azaldu, eta Silvia Carballok bere gain hartu du informazioa bere arduradun politikoari helaraztea; bertaratu diren gainerako guztiak, berriz, ekimenaren identifikazioa egitearen alde azaldu dira.

3.2 Informazio-sistema:

Paul Ortegak ekimenaren xehetasunak azaldu ditu, alderdi tekniko batzuk oraindik zehazteke daudela eta proposamenaren finantzaketaren % 50 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren kontura eta beste % 50a gainerako erakundearen kontura izango liratekeela adieraziz.

Jarraian, Miguel Pérez, Marian Elorza, María Guijarro, Juanma Balerdi, Silvia Carballo eta Aitor Gabilondo jaun-andreek hartu dute hitza, hainbat zalantza eta gai teknikoren gainean eztabaidatzeko. Iritziak elkartrukatu ondoren erabaki da egokiena Jorge Gutiérrezekin bilera tekniko bat egitea litzatekeela, funtsezko hiru gaiari heltzeko: datuak emateko lana bikoiztearen arriskua, webgunea hartuko duen erakundea eta etorkizunerako mantentze-kostuak.

3.3 Larrialdi-laguntzarako baterako mekanismoa:

Paul Ortegak jakinarazi du martxoaren 2an tailer bat egingo dela, Arabako Larrialdi Funtsak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak antolatuta, eta programa zehatz-mehatz azaldu du jarraian.

Ondoren, bertaratuetako batzuek balorazioak egin dituzte horrelako euskal funts bat edukitzearen mamiaren eta egokitasunaren gainean, eta tailerraren esparruan eztabaidarekin aurrera jarraituko dutela adierazi dute.

4. **BESTELAKOAK ETA GALDE-ESKEAK**

Paul Ortegak eta Marian Elorzak informazioa eman dute Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Estrategiari lotutako dokumentuen eta euskal lankidetzaren eredu birpentsatu eta eguneratzeko prozesuaren gainean. Gainera, bi prozesuetarako ekarpen guztiak ongi etorriak direla azpimarratu dute, eta Erakundearteko Batzordea horiei buruz eztabaidatzeko espazio egokia izan daitekeela iruditzen zaie.

Paul Ortegak aukera aprobetxatu du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak laster antolatuko dituen bi jardunaldien berri emateko: Garapen Estrategia Positiboen IX. Jardunaldiak, martxoaren 14an eta 15ean Bilbon egingo direnak, eta Garapenerako Politiken Koherentziari buruzko Nazioarteko Jardunaldia, apirilaren 6an Bilbon antolatuko dena.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez gero, presidentek Erakundearteko Batzordearen bilkura amaitutzat eman du, 12:20an.

EUKEN BARREÑA CALOCA

**ERAKUNDEARTEKO BATZORDEKO
IDAZKARIA**

M^a ANGELES ELORZA ZUBIRIA

**ERAKUNDEARTEKO BATZORDEKO
PRESIDENTEA**